

## » TELEGRAMA

**Khea Ziater** antzerki taldearen **Malmö** antzezlanak ikusteko aukera izango dute otsailaren 17an **Azpeitiko Soreasura** hurbilduko direnek: zita 22:00etan da, sarrerak 8-10 euro artean **STOP Bidehuts** musikari kolektiboak hamar urte bete ditu eta Donostiako **Le Bukowskin** ospatuko dute, nola ez, musikarekin: **Audience**, **Aida Jupiter** eta **Joseba Irazoki** ariko dira otsailaren 18an 20:00etatik auskalo noiz arte **STOP Musika eta droga**: zer harreman dute? Gai horretaz eztabaidatuko dute **Gasteizko Gaztetxean** otsailaren 18an 18:00etatik aurrera, Musikgerrillak antolatuta. Ondoren jam session bat eta kontzertua prestatu dituzte **STOP**

## » DISKOA

**Berriozar**

BONBERENEA TXARANGA

Bonberenea Ekintzak, 2017

*Bonberenea Txaranga duela hamalau urte sortu zen Tolosan, Bonberenea etxearen baitan.*



Joxi Ubeda

Bonberenea Txaranga Tolosako inauterietako betiko lau txaranga pieza jotzen ditu bere lan berrian, imajinario handiarekin, grinarekin, gatzarekin eta pipe-rarekin, ohi duen bezala, eta jai-giroa eta alaitasuna oso ongi transmititzen du. *Burundiana*, *Galtzaundi*, *Peillo zili zili* eta *Baraceko pikua* dira lau piezak, kalejiran ibiltzeko aproposak. Hamar hazbeteko binilozko disko batean eta CD batean entzun daitezke, biak ala biak baitaude *Berriozar* lanaren karpeta barruan.

Bonberenea Txaranga ez da ohiko txaranga bat. Musikariak gazteak dira, bihurriak, eta trebeak. Ongi sinkronizatuta

jotzen dute. Beren kantuak konposatzen dituzte, eta rock talde ezagunen bertsoak ere egiten dituzte. Disko berrian, beren ukitu bereziarekin interpretatu eta berriro dituzte inauterietako abesti batzuk. Doinuetan, besteak beste, jazz, flamenko eta musika garaikide aireak antzeman daitezke ohiko txaranga doinuekin eta erritmoeekin uztartuta.

Grabazio saioetan, musikari hauen laguntza izan dute: Natalia Garmendia eta Elsa Nguema (ahotsak), Iker Pando (gitarra) eta Aritz Jupur (sintetizadorea). Karlos Osinaga arduratu da grabazioaz eta nahasketez, eta Jonan Ordorika masteerizazioaz. Ekoizpena ederki egin dute. Halaber, diseinu lana ere aipagarria da, ikusgarria. Jon Arruabarrenak eta Imanol Urizarrek egin dute. Zaharra eta berria nahastu dute, oso umore onarekin.

Bonberenea Txaranga duela hamalau urte sortu zen. *Berriozar* bere bosgarren diskoa da, eta Bonberenea etxearen 20. urteurrena ospatzeko plazaratu du. Bere aurreko diskoak dira *Bihar ez da gaur* (2014), *Pirritx, Porrotx eta Marimotots & Bonberenea Txaranga* (2011), *Rocka ta urrezko komona* (2008) eta *Bonberenea Txaranga* (2005). *Pirritx, Porrotx eta Marimotots & Bonberenea Txaranga* lanean CDaz gain DVD bat ere badago, eta beste DVD bat ere kalean badu, *Bonberenea Txaranga 2003-2013 Etxean, zuzenean!* (2013), 10 urte bete zituenean osatu zuena. Bonberenea Ekintzak zigiluarekin argitaratu ditu lan horiek guztiak. ■

